

txintxarri



"Biktima guztiak" gogoan

Memoriaren Eguna ospatu dute Lasarte-Orian, eta Askatasunaren parkean lore eskaintza egin diete biktimei / 3

TXINTXARRI

Dispertsioaren ertzak

Santi Arrozpidek eta Jabi Gallagak 30 eta 20 urte bete dituzte preso, hurrenez hurren / 6-9

Udalbatzarreko alderdiak autobus murrizketen kontra agertu dira, baina ez dira ados jarri / 2

David Martin eta Maite Salazar, herritarren artean azkarrenak Behobia-Donostia lasterketan / 12




ELECTRICIDAD
ARREGUI



600 857 586
www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com
(on-line denda)

Argiztatu zure etxea LED sabai-lanpara ederrenekin!



Lanpara berritzaileenak:

- Bozgorailudun lanpara
- Intentsitatea erregulatzeko aukera duten lanparak
- Argi "hotz" eta "beroa" duten lanparak
- Aldatu zure alogenoak LED fokuengatik eta aurreztu hilero
- Aginte bidez kolorez aldatzen diren argiak

Alderdiak ezin ados jarri autobus murrizketekin

Lasarte-Oriako alderdiek desadostasuna agertu dute Gipuzkoako Foru Aldundiak aurkeztutako autobus zerbitzuen aurreproiektuarekin. Hala ere, ez dira haien artean ados jarri: murrizketen aurkako EH Bilduren mozioak ez du aurrera egin, bai ordea PSErenak

Maddi Noriega

Gipuzkoako Foru Aldundiak aurkeztutako autobus zerbitzuen aurreproiektuak tira-bira handia sortu du jendartean. Murrizketa horien aurka, mugimenduan dira herritarrek, eta politikariek ere gaiari heldu diote. Astearteko udalbatzarreko gai nagusietako bat izan zen hori, eta alderdien arteko desadostasunak agertu baziren ere, alderdi sozialistaren mozio alternatiboak egin du aurrera.

Mozioa bozkatu aurretik, EH Bildurena izan dute hizpide; Foru Aldundiaren proiektua "bertan behera" uzteko eskaera egin dute, txostena lantzeko eragileekin elkarlanik egin ez dutela argudiatuta. ADLOP Ahal Dugu Lasarte-Oria Podemos alderdiak bat egin du puntu horretan, eta eragileekin egin beharreko lanketa defendatu du Arkaitz Naya bozeramaileak.

Alderdi Sozialista (7 boto) eta EAJ (2 boto) mozioaren aurka agertu dira. EAJko Estitxu Alkorta onartu du gaiaren azterketa ekonomikoa,



Hainbat herritan astearte arratsaldean egindako udalbatzarra jarraitzen. TXINTXARRI

soziala eta ingurumenarena egin behar dela. "30 urteko atzerapenarekin heldu da lizitazio hau, eta orain, ezin da geldiarazi".

PSEko Hirigintza zinegotzi Agustin Valdiviaki, berriz, azaldu du egin beharreko lanak egin dituztela: "Helegiteak aurkeztu ditugu, eta bildu gara Marisol Garmendia Mugikortasuna eta

Lurralde Antolaketako diputatuarekin". Horrekin batera, aurreproiektu bat dela gogorarazi du; oraindik lantzeko eta behin betiko proiektua aurkezteko dago. Azalpenaren ostean, mozio alternatiboak aurkeztu du, eta EAJren babesarekin eta PPren abstentzioarekin aurrera ateratu da.

Autobusen gain, Kataluniaz ere aritu dira. Errepublikak Estatu Independente gisa aitortzeko eskaera egin dute EH Bilduk eta EAJk, baina PSEren, ADLOPen eta PPren aurkako 11 botorekin baztertua geratu da. Alderdi Sozialistak eta ADLOPek mozioan aurkeztutako zenbait punturekin ados jarri arren, Nayak mozio alternatiboak aurkeztu du, baina ez du aurrera egin.

Urnietako adibidea ekarrita, txartel bakarraren gaia ere jarri du mahai gainean ADLOPek. Udal zerbitzuak baliatzeko, eta "zerbitzu hobeago bat" eskaintzeko bide ikusten du, eta "udalarentzat eskuragarri dagoen inbertsioa" dela ere defendatu du. Hala ere, ez du babes nahikorik lortu boto bakarrarengatik. Eskaera honi erantzun bat eman dio PSEk: Caja Ruralek finantzaturako proiektua lantzen ari direla eman du ezagutzera, eta EAJren babesaz aurkeztutako alternatiba onartu dute. Horrek harridura sortu die ADLOPi eta EH Bilduri; biek hala biek, Caja Ruralek zoru klausulekin izandako arazoak ekarri dituzte gogora, eta ez dute ulertzen finantzaketa banku horrekin bideratzea.

Gaia mahaigainean

Lasarte-Oriako Udalaren bide sareko garbiketa zerbitzua, eta beste antzekoak kontratatatzeko espedientearen onarpena bozkatzera ere aurreikusia zegoen, baina EAJk eskatuta, mahai

gainean geratu da gaia, eztabaidatu gabe.

Jon Antxordokik EAJko bozeramaileak azaldu du gaia batzordean landu zenean, ados agertu zirela, baina orain zalantzak sortu zaizkiela. Ondorioz, eskatu du datorren udalbatzarrerako uzteko. EH Bildu, EAJ, ADLOP eta PPren babesarekin mahai gainean geratu da.

Herriko haur parkeak eta kirol guneen mantentze lanak egiteko eskatu du EAJk, eta PSErekin batera aurkeztutako mozioa onartu dute aldeko 13 botorekin.

Aho batez onartutako mozioak

Bestalde, honako gaiak onartu ditu aho batez batzarrak: 2016ko ekitaldiko aurrekontuaren kontu orokorraren dosierra eta bidaiarien errepide bidezko garraio zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko erreglamendu aldaketa.

Horrekin batera, 2017. urteko aurrekontuen kreditu gehigarrien 3. espedienteak, eta Zabaleta Berri HIEko a.3.1-17, a.3.1-18 eta a.3.1-19 partzeletako xehetasuneko estudioa behin betiko onartu dituzte.

Udalbatzarra amaitu aurretik, galdera eta erreguak egiteko tarte bat ere zabaldu dute, eta alderdi politikoei zenbait galdera luzatu dizkiete Jesus Zaballos alkateari. Besteak beste, Atsokabarreko kirolgunea, udaleko web orria, kartelak, eta Kaskarro bideko obrak izan dituzte hizpide.

Hasi da 2018ko udal aurrekontuetako 500.000 euro zertan gastatu erabakitze prozesua

Bi astez proiektu baten inguruko proposamenak egin ditzateke herritarrek. Gehien bozkaturako bostak bigarren fase batera igaro, eta hor ezarriko dituzte lehentasunak

Txintxarri

Herritarrek aurrekontuen zati bat zertan gastatu erabakitze aukera izango dute aurten ere. Iaz bezala, udalak martxan jarri du partaidetzako aurrekontuen prozesua. Horrela, azaroaren 13tik 26ra bitartean, gutun bidez proposamenak egin ditzakete Lasarte-Orian erroldatutako adin nagusikoei. Etxebizitza bakoitzera gutun bat bidaliko du udalak, egitasmoaren berri emateko. Interesatuak eskuorriaren atzealdean idatzi dezakete proposamena.

Pertsona bakoitzak bozka bat emateko eskubidea izango du. Horregatik, beharrezkoa izango da izen-abizenak eta NAN idaztea gutunean. Eskuorri gehiago behar izanez gero, udalaren webgunean eskuratu daitezke, edo fotokopia bat egin daiteke. Udaletxe zaharrean, kultur etxean eta osasun zentroan jasoko dira proposamenak, horretarako ahalbidetutako buzoietan.

Bigarren fasea

Behin proposamenak jasota, egingarriak direnak -500.000

euroko aurrekontua gaindituko ez dutenak- zenbatuko dituzte, eta gehien errepikatzen diren bostak aukeratuko dituzte bigarren faserako. Abenduaren 11tik 26ra bitartean aukeratu ahaliko da bost proiektu horien artean, bakoitza letik 5era baloratuta. Boto gehien jasotako egitasmoak aurrera eramango ditu udalak.

Jesus Zaballos alkateak eta Lourdes Acevedo Gizarte Zerbitzuetako eta Parte Hartzeko arduradunak aurkeztu dute proiektua. Udaleko bi hautetsiek



Udal ordezkariak udal aurrekontuen prozesuaren aurkezpenean. TXINTXARRI

parte hartzera deitu dituzte herritarrek, udala ere haiena egin dezaten. Iaz 151 pertsonak parte hartu zuten proiektuan, eta 600.000

euro inbertitu zituzten Askatasun Parkeko umeentzako jolas-gunerako estalkian eta Uistin kaleko berrubizatzetan.



Udal ordezkariak, Memoriaren Egunean. TXINTXARRI

Gatazkaren biktimak, Memoria Egunean

Udal taldeko ordezkari guztiak, PPkoa ezik, bildu dira Askatasunaren parkean, "terrorismoaren eta bestelako bortxakeria politikoen biktimak" omentzeko. Arrosa zuriak eskaini, eta bost minutuko isilunea egin dute, gatazkaren biktimak gogoratzeko

Maddi Noriega

Udal ordezkari ia guztiak bildu ziren ostiralean, hilaren 10ean, Askatasun Parkean, "terrorismoaren eta bestelako bortxakeria politikoen biktimak" omentzeko. Arrosak eskuetan, Jesus Zaballos alkateak gogora ekarri du duela aste batzuk argitaratutako *Memoria partekatuta baterantz* txostena. "Gure herriko bizitza normalizatzeko" helburuarekin egin da, Zaballosen hitetan. Izan ere, alkatearen hitzetan memoriak eraikitzeo "partekatua" izan du.

Alkateak gaineratu du lasarteoriatarrek, ordezkari politikoekin batera, "terrorismoaren eta bestelako bortxakeria politikoen biktimak" diren aitortza aurrera jarraitu behar dutela: "Ez zaie arretarik eman, eta ahaztu ere egin dituzte sarritan euskal erakundeek eta gizarteak. Iraganeko akatsak ahazten dituen gizarte batek berriro errepikatzeo arriskua du".

Lasarte-Oriako Udalak bi konpromiso hartu ditu memoriarako bidean: lehena da topaketarako eta eztabaidarako

espazioak ugaritzea eta, bigarrena, kontaketa bat eraikitzea, "biktima guztiak" errespetatuko dituen.

Idatzia irakurri eta gero, arrosa zurien eskaintza egin, eta bost minutuko isilunea egin dute, biktimekiko errespetua adierazteko.

PP ez da ekitaldian izan

Alejandro Saenz PP alderdiko ordezkaria ez zen ostiral eguerdiko ekitaldian izan. TXINTXARRI-ri azaldu dioenez, Getxon egin den ekitaldian egon da. "Bertan terrorismoaren biktimak soilik izan dituzte gogoan. Hain zuzen, memoriaren eguna helburu horrekin sortu zen".

'Lasarte-Oria Lantzen' aldizkariaren ale berria kalean da

Hurrengo egunetan udalaren *Lasarte-Oria Lantzen* aldizkaria iritsiko da Lasarte-Oriako 7.900 etxebizitzetara.

Udatik gaur egunera arte, Lasarte-Oriako udaleko atal bakoitzak aurrera eramandako proiektu eta ekimenen berri ematen du aldizkariak. "Datu objektiboak eta aseptikoak dira, ez dugu nahi alderdikeria egiten

dugula leporatzea," esan du Jesus Zaballos alkateak.

Izan ere, aldizkariak herritarrei udalak egiten duena jakinaraztea du helburu. "Udalak ekintzen berri emateko prentsaurrekoak, aurkezpenak, oharra, web gunea eta sare sozialak erabiltzen ditu. Baina teknologia berriak ez daude guztien eskura eta bada hauekin moldatzen ez dena edo paperean argitaratzen dena bakarrik irakurtzen duena ere". Horregatik sei hilabetero



Udal aldizkaria. TXINTXARRI

Lasarte-Oria Lantzen aldizkaria argitaratuko du.

8.000 ale argitaratuko dira eta 5.015 euroko kostua du.



NEURE KABUZ

AIZPEA AMAS

Banaketak

"Jertse hori erosten badugu?", galdetu du umeak. "Ez, maitea, hori neskena da", erantzun dio amak; bote prontoan, inolako dudarik gabe. Nola, ba, eduki. Haurren arropa denda pasillo batek banatuta dago. Alde batean, pastel-koloreak, loretxodun marrazkiak eta soinekoak. Beste aldean, kolore beroak, marrazki ganberrodun kamisetak eta galtzak; bakarrik galtzak, soinekorik ez. Eta zalantzarik geratzen bazen, etiketan, hau: BabyGirl eta BabyBoy. Eta kitto.

Kalean, Gabonetako argiak ikusten hasi garen honetan, opariaren katalogo goiztiarrenak ere hasi dira agertzen. Eta salbuespenak salbuespen, inork ez du zalantzarik edukiko mota bateko opariak norentzat diren eta beste mota bateko opariak, berriz, norentzat diren adierazteko unean.

Baina nortzuk erabiliko dituzte jostailu horiek? Neskentzako jertse hura nahi zuen umeak zer pentsatuko du? Agian, ez zion batere garrantzirik emango, baina hala ez balitz? Zein katalogok ordezkaten du panpinari biberioia ematen dion mutila? Eta zer gertatzen da garabi bat gidatzen duen neskekin? Beharrezkoa al da genero bereizketa hori egitea? Ez al dugu ume horiek etorkizunean berdintasunean bizitzerik nahi?

Zurrumbilo kontsumista honen tartean argi izpiren bat ere agertu da postontzian: Ipuin eta Liburu Moreen Gida. Udal liburutegian bertan berdintasunean eta dibertsitatean oinarritutako balioetan oinarritutako materiala aurki daitekeela azaltzen du.

Honekin guztiarekin, behintzat, badakit zer eskatuko diegan Olentzero eta Mari Domingiri: katalogo arros-urdinei kasurik ez egiteko.

Erketz Euskal Dantza Taldearekin hiru urteko elkarian hitzarmena

2017. eta 2019. urte artean Erketz EDTk Lasarte-Oriako Udalaren diru laguntza izango du. Jesus Zaballos alkatea eta Erketz EDTko lehendakari Ruben Arranz pozik agertu dira hitzarmenaren sinadura ekitaldian.

"Oso eskertuak gaude Erketzek egiten duen lanarengatik. Herrian eta herritik kanpo emanaldiak eskaintzen ditu eta beste herrietan Lasarte-Oriaren izena ezaguna egiten du", azpimarratu du alkateak.

Hitzarmenaren arabera, Erketz EDTk 2017an 3.727 euro, 2018an 3.779 euro eta 2019an 3.832 euro jasoko ditu.

Bere egitekoak dira San Joan bezperako ekitaldian eta Santa Ana egunean parte hartzea, Dantzari Eguna eta Dantzari Txiki Eguna antolatzea eta San Pedrotako emanaldia eskaintzea.

Honetaz gain, alkateak aurreratu duenez, 2018. urtera begira eranskin bat egingo zaio hitzarmen honi. "Erketz EDTren 50. urteurrena da eta hainbat ekitaldi antolatu dituzte ospatzeko. Herri guztiek ezin dute esan 50 urte dituen elkarte bat dutenik, eta hori txalotzekoa da".



NOAOA
BIDAIAK

IRTEERA MAIATZEAN
Noaoak gidatutako talde bidaia.
Lasartetik irtenda.

T.: 943 373 613 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea 10, Lasarte-Oria

Euskal jai egunerako atzera kontua

Azaroaren 25ean Euskal Jaia ospatuko dute Lasarte-Orian. Musika, dantza, herri-kirolak, erromeria, jatekoa eta edatekoa... denetarik izango da Okendo plazan

Txintxarri

Euskal jantziak armairutik ateratzeko ordua iritsi da, Euskal Jai eguna dator eta. Azaroaren 25ean, larunbatean, egun osoko egitaraua antolatu dute.

Txistulariek Lasarte-Oriako erdiguneko herritarrek esnatu eta kaleak alaituko dituzte.

Ostean, 11:30ean, kantu-dantza jira aterako da Andatza plazatik. "Urtero auzo bat hartu nahi dugu abiapuntu, iaz Zumaburu izan zen eta aurtengoan Sasoeta", azaldu dute antolatzaileek.

Jaizkibel plazan, Elizatzeko plazan, Ilargi tabernan, Sagardotegi kalean eta Okendo plazan geratuko dira. Bi abesti eta bi dantza egingo dituzte bakoitzean. "Haur, zein helduek ezagutzen dituzten doinuak izango dira".

Elizatzeko plazan gainera, Gazte Klubeko lagunek prestatutako mokadutxo goxoa dastatuko dute.

Antolatzaileek jakitera eman dutenez, "zer prestatuko duten erabakitze gaur arratsaldean pintxo lehiaketa egingo dute, bata LH3 eta LH4 mailako lagunek eta bestea LH5 eta LH6koek".

Kantua eta umorea

Kantu-jira amaitzean, indarrak berreskuratzeko paella jatea izango da Okendo plazan. Tiketek zortzi euroko balio dute. Jalgi eta Ttakunen eskuragarri daude.

Bazkal ostean ez da lokartzeko astirik izango. Xumela koruak



Adin ezberdinetako herritarrek ederki gozatzen dute kantu-dantza jiran. TXINTXARRI

gonbidatuta, Zarauzko Montetxio korua eta Hondarribiako Olagarro korua etorriko dira, eta emanalditxo bat eskainiko dute.

Umorea ere izango du tartea, Intza Alkainen bakarriketa izango da eta.

Kirola

Arratsaldean, berriz, kirolen txanda izango da.

Azkeneko hiru Euskal jai egunetan lez, Okerra harria izango da plazan.

Sasoeta baserrian zegoen udare forma duen 140 kiloko harri irregularra jasotzeko erronka onartu dute berriro ere harri jasotzaileek.

2013an, Ostolazak zazpi jasoaldi egin zituen; 2014an, sei eta 2015ean, bi.

Haur eta gaztetxoek ere izango dute zer egin, Ostadarrek herri-kirolak eta jolasak antolatuko ditu eta.

Intza Kirol Elkarteko pilotari gaztetxoak jokoan ikusteko aukera ere izango da.

Euskal Jai egunari amaiera "aparta" emateko musika izango da nagusi.

Ttiriki Ttarrakako lagunek, Ixak Arruti baxu-jotzailearekin eta Jokin Irastorza bateria-jotzailearekin batera, Okendo plaza dantzan jarriko dute. Oaintxe in deu!! txaranga, berriz, herriko kaleetatik barrena ibiliko da.

Antolatzaileek euskal jantziak soinean dituztela kalera atera eta ekintzetan parte hartzeko gonbita egiten diete herritarrei. "Euskal giro aparta izango da eta".

Talde Aktibista sortu dute, gizarte gaiak lantzeko xedez

Errefuxiatuen inguruko solasaldia antolatu dute hurrengo asteazkenean, hilaren 22an, Villa Mirentxun

Txintxarri

Sorturen birfundazio prozesuan emandako hausnarketan ondoren, Lasarte-Oriako Talde Aktibista sortu dute, herrian ikusi dituzten arazoei eta gai sozialei heltzeko. Asteazkenean aurkeztu zuten taldea.

Horrela, hiruhilabeteko bakoitzean gai jakin bat jorratuko dute. Gabonak bitartean errefuxiatuei jarriko diete arreta. "Pil-pilean dagoen gaia izan arren, asko dugu eztabaidatzeko eta hausnartzeko. Gainera, gizartearen erantzun kolektibo bat premiazkoa da erakundeen utzikariaren aurrean", azaldu du taldeak ohar baten bidez.

Hainbat ekintza egingo dituzte gai hori lantzeko: hasteko,

datorren asteazkenean, hilaren 22an, solasaldi bat antolatuko dute Zaporeak eta Ongi Etorri Errefuxiatuak elkarteetako kideekin. Villa Mirentxun izango da, 19:00etan. Bestetik, abenduan Bilboko portuan dauden errefuxiatuentzat bilketa egingo dute. Zehazki hilaren 4tik 20ra bitartean jasoko dituzte materialak.

Talde Aktibistatik dei egin diete herritarrei gai sozial horiek plazaratzeko elkarlanean aritzera. "Taldea eta norbanako ororentzat ateak irekita ditugu". Talde Aktibistarekin harremanetan jartzeko ondoko helbidera idatzi daiteke: lasarteoriataldeaktibista@gmail.com.



TXINTXARRI

Txistu, danbolin eta organo doinuak

Jose Ignacio Ansorenak eta Ana Belen Garciaik ireki dituzte Danok Kideren aurtengo Musika Topaketak. Txistua eta danbolinarekin aritu da lehena, eta organoarekin bigarrena. Ohi bezala, lepo bete da Brigitarren komentua. Sakristian aritu dira Ansorena eta Garcia, bertan baitago organoa. Eserlekuak, ordea, behean zeuden. Kontzertuaren xehetasun bakar bat ere ez gaitze aldera, antolatzaileek pantaila erraldoi bat jarri dute.

Euriagatik ere, erosketa ugari

Aterkia esku batean, eta Baserri Azokan egindako erosketak bestean. Hainbat herritar animatu dira etxetik jaitsi eta Okendo plazan salgai zeuden kalitatezko produktuekin hozkailu eta apalak betetzeko asmoz. Tolosako babarrunak, barazki eta frutak, hestebeteak, lore eta landareak, krema eta ukenduak... Aukera zabala eduki dute lasarteoriarrek. Era berean, gaztetxoek hainbat jokotan arituz pasa dute denbora.



TXINTXARRI

Gazteentzat aisia alternatiboa, larunbatean

Gazteei aisia alternatiboa eskaintzeko helburuz, *Zombie Survival* rol joko antolatu du udalak larunbat gauerako, baina hori baino lehen ere izango dute non gozatua 15 eta 30 urte bitarteko gazteek.

Maialen Chourraut kiroldegian, saskibaloian eta areto futboleant aritzeko kirol ginkanak antolatu dituzte, Ostadar SKT-rekin eta Eguzkirekin batera. 20:30ean hasiko

dira, eta 22:00ak arte horietan parte hartzeko tartea izango da.

Izena ematea beharrezkoa da, eta horretarako, saskibaloi ginkanan parte hartu nahi duenak ostadarsaskibaloia@hotmail.com helbidera mezu bat idatzi behar du. Areto futboleant aritzeko, berriz, eguzkiaretofutbola@outlook.com.

Amaitzean, sari banaketa egingo dute, eta 23:00etan hasiko den *Survival Zombie* rol jokorako sarrerak, zein kultur ekitaldietan erabili ahal izateko bonuak banatuko dituzte.

Munduko xehetasun guztiez goza dezazun, iritsi da lente progresiboen belaunaldi berria

Lasarte-Oriako Multiópticas dendak lente progresiboen belaunaldi berria aurkeztu du, X. belaunaldiko kideak diren gaur egungo presbitei zuzendua. Belaunaldi hau 1965 eta 1980 urteen artean jaiotako pertsonak osatzen dute. Aurreko belaunaldiek baino bizitza erritmo biziagoa dute, mundu hiperkonektatua bizi dira, ikusmen-ohitura berriak dituzte, gailu elektronikoekin egiten dute lan eta zeregin askotan dihardute aldi berean



Lasarte-Oriako Multiópticas dendan Varilux lente progresiboen belaunaldi berria aurkeztu dute. Teknologia berritzailea dute eta hainbat TXINTXARRI

Orain arte, gertuko ikusmena zuzentzeko, begiradaren norantza bakoitzeko plano bakarra izaten zen kontuan lente progresiboen diseinuan, eta, ondorioz, erabiltzaileek burua mugitu behar zuten zeregin batetik bestera igarotzeko. Orain, Varilux X Series berriekin gertuko ikusmen-behar zabala dugu kontuan. Presbitei besoen luzera eta ikusmen eremuaren barruan (40 eta 70 zentimetro artean) gertuko ikusmen dinamikoa eskaintzen die, baita mugimenduan daudela ere.

Teknologia berri honi buruzko xehetasun gehiago ezagutzeko, **Lasarte-Oriako Multiópticas** dendako profesionalekin solastu dugu, hauek lasarteoriatarren

ikusmen-osasunean adituak baitira.

Zein da Varilux X Series lente progresiboen gama berriaren berrikuntza nagusia?

Iraultza handia da. Orain arte, presbita askok eta, batez ere, aktiboak direnak, egunerokoan ikusmen-mugak zituzten gertuko edo erdiko distantzietan, baina progresibo berri hauekin hobera egiten du haien ikusmenak distantzia horietan.

IRAULTZA HANDIA DA VARILUX X SERIES GAMA, BOST URTEKO IKERKETA SAKONAREN FRUITUA

Nola lortu da berrikuntza hori?

Berrikuntza Essilorren bost urteko ikerketa sakonaren eta erabiltzaileekin egindako lanaren ondorioa da. 30 bat patente erabili dira lentera garatzeko. Horrek teknologia berritzailea du: gertuko ikusmena hobetzen duen XTEND; NANOPTIX, mugimenduan dagoenean oreka mantentzen laguntzen duena eta SYNCHROEYES, ikusmen-angelu zabalagoa eskaintzen du.

Lasarte-Oriako Multiópticas-en Varilux Xclusive 4D gomendatzen dugu, %100eko bermearekin. Lente berriak probatu dituzten bezero guztiak poz-ozik daude eta lente hauekin nabari duten hobekuntza izugarria dela azpimarratzen dute guztiek.



Dendako profesionalak Varilux Xclusive 4D gomendatzen dute. TXINTXARRI



Toñi Ruiz eta Mikel Gallaga, Jabi Gallagaren ama eta anaia. MIKEL GALLAGA

"Preso gutxiago daude, baina ez dugu gutxiago sufritzen"

TOÑI RUIZ ETA MIKEL GALLAGA JABI GALLAGA PRESOAREN SENIDEAK

Hilaren 26an hogeitun urte beteko dira Jabi Gallaga atxilotu zutenetik. Orduz geroztik familiak egindako kilometroak zenbaezinak dira. "Urteekin okerrera doa dena".

Adrian Garcia

Jabi Gallaga lasarteoriatarren familiak azalean sufritzen ditu espetxe politikaren ondorioak: hogeitun urte eman ditu Frantziako eta Espainiako kartzelak bisitatzen. Azken urteetan Euskal Herrian egoera politikoa aldatu arren, Toñi Ruizek (Arrigorriaga, Bizkaia, 1931) eta Mikel Gallagak (Bilbo, 1966) ez dituzte nabaritu garai berrien onurak. "Kilometro berberak egiten ditugu". Gallagaren amak eta anaia 1.600 kilometro baino gehiagoko joan-etorria egin behar dute

Kordobara (Andaluzia, Espainia), Gallaga bisitatzeko. Hilaren 26an beteko dira hogeitun urte espetxeratu zutela.

Nola aurkitu zenuten Jabi Gallaga bisita egin zenuten azken aldian?

Toñi Ruiz: Azken boladan nahiko ondo dabil, nahiz eta beste

"HERRI HONEK DUINTASUNA GALTZEN DU PRESO BAT KARTZELAN DAGOEN EGUN BAKOITZEKO"

batzuetan nahiko makal ibili den. Disimulatzen saiatzen da, baina bere amak badaki noiz dagoen gaizki. Kartzelan dagoenetik bere garai onenari buruzkoak ditu orain.

Mikel Gallaga: Jabik oso izaera ona du. Eta preso daraman hogeitun urtetan eta ihesean eman dituen hamahirutan umore ona erakutsi du beti. Baina barrutik doa arrangura, eta urteak ez dira alferrik igarotzen.

Hamahiru urte eman zituen ihesean atxilotua izan aurretik. Presoen senide batzuk esana da behin

atxilotzean familia nolabait lasaitzen dela.

M.G.: Egia da. Ihesean dagoenean adi-adi zaude albisteei begira, gertatu daitekeenaren beldur. Beldurra duzu, hil dezaketelako. Ihesean egon zen hamahiru urteak izugarriak izan ziren bere bizitza sozialerako. Garai hartan soilik familiarekin zuen harremana, eta oso gutxitan. Noski, atxilotu zuteneko lagunik gabe geratu zen. Horiak berreskuratzeke lana egin behar izan genuen.

T.R.: Ez da egia. Urte guztiak berberak dira familiarentzako; ama bezala hitz egiten dizut. Atxilotu zutenean irratia entzuteari utzi genion, bagenegielako non zegoen. Hori amaitu zen. Baina alde egin zuen lehen egunetik ez dugu lasai lo egiten eta ez gara lasai bizi. Ez da egia atxilo dagoelako lasaiago gaudela, bakakigu-eta nola funtzionatzen duten espetxeek. Pentsa zenbat bisita egingo nituen urte horietan guztietan. Bisita bakoitzean bere ezinegona handitzen ikusi dut.

Nola eragin du familian horrenbeste urteetako dispersio politikak?

M.G.: Gertuko bat kartzelan duzunean bizitza guztia baldintzatzen dizu. Zure izatearen eta denboraren zati handi bat haren gain inbertitzen duzu. Auskalo egunean zenbat aldiz akordatzen naizen Jabi anaiarekin. Nire arrebarekin baino askoz gehiago, nahiz eta hura pozik bizi den bere familiarekin.

Ezinbestean familiaren arreta gunea bilakatu al da?

M.G.: Bai, noski. Modu batean mendekotasunean dagoen senitarteko bat izatea bezala da. Anaia nagusia da, baina anaia txikia bihurtu da arreta eta zaintzari dagokionean.

Kordoba 800 kilometrora dago. Joan eta etorri 1.600 baino gehiago dira. Nolako da senidea bisitatzeko egiten duzun bidaia?

T.R.: Horrenbeste urteetan garraibide guztiak erabili ditugu. Baina gehien erabili duguna da Mirentxinen furgoneta. Mirentxin elkarrekin egiten duena

"INPLIKAZIOA JAITSI EGIN DA, URTEAN MANIFESTAZIO JENDETSU BAT EGITEA EZ DA NAHIKOA"

izugarria da. Eta gustatuko litzaidake nabarmentzea ere Espainiako herritarren partetik jasotzen dugu babes zabala. Liburu lodi bat idatzi daiteke horri buruz.

M.G.: Normalean Mirentxinen joaten gara, hilabetero familiako kide bat. Nire amak hiru hilabete behin bidaiatzen du. Orain bi urte arte hilero joaten zen, baina oso neketsuak egiten hasi zitzaizkion bidaiak. Nire amarekin autoz joan ohi gara, gidatzen duen beste pertsona batekin. Eta lo egiteko apartamentu bat hartzen dugu, edo eskaintza bereziren bat topatzen saiatzen gara. Kordoban ongi tratatu gaituzte, eta konfiantzako taxilaria, tabernaria eta hotela dugu. Jende horretaz ari da nire ama; ez dute inplikazio politiko zehatzik, baina gure egoeraz jabetzen dira, eta maitekiro tratatzen gaituzte.

Hogeitun urte luza dira bidaia horiek. Ekonomikoki zama garrantzitsua izango da.

T.R.: Nik kontuak atera ditut: pisu bat ez, bi erosi ahalko nituzke diru horrekin. Baina hori gutxienezkoa da. Hilaren bukaerara iristen bagara nahikoa dugu. Garrantzitsua da Jabiri ahalik eta bisita hobereana egitea, ikus dezan berarekin gaudela. Gainerakoak ez dio axola. Dirua ez da kezka bat. Berak burua entretenitua eduki eta animatua egon behar du. Bidaiak, dirua... Horrek ez dio axola.

M.G.: Preso bakoitzak bere beharrak ditu. Jabik asko erretzen du, eta hor badauka gastu handi bat. Hilabetean 500-600 euro gastatzen ditugu. 20 urtez, atera kontuak. Beste gauza askotatik kentzen dugulako iristen zaigu, batez ere nire amak. Kartzela ez da doakoa, gutxienez erosotasun bat eduki nahi baduzu behintzat.

Ahalik eta bisita gehien edukitzea garrantzitsua izango da.

M.G.: Zalantzarik gabe. Lasarteko gazte askok ezagutu nahi izan dute, eta bisitak antolatu dituzte. Garrantzitsua da, belaunaldi berriak ezagutu ditzan. Kanpoan egotetik antza gehien duena da kanpoko bisitan edukitzea. Eskutitzen bidez da presoekin komunikatzeko modua. Eta haiei on egiten die, arratsalde bat igarotzen dutelako eskutitz bat irakurtzen, eta agian beste bat bueltan erantzuten. Garrantzitsua da informazio pertsonala

jasotzea, bizitzei buruzkoa. Kontu politikoez jakiten dute eta gehienetan.

TXINTXARRI ere jasotzen du astero.

M.G.: Bai, eta erreferentziazkoa da Jabirentzat, Lasarterekiko loturari eusten diolako horrela. Gainera, txunditu egiten da argazkiekin, urte horietan guztietan herria nola aldatu den ikusten duelako.

Sentitzen duzue espetxe politika familiari kalte egitera bideratuta dagoela?

M.G.: Mendeku politika bat da: "Gaiztoak bazarete hauxe gertatuko zaizue, zuei eta zuen familiei". Kartzela guztiak berdinak dira, Burgosen edo Huelvan. Presoen bizitzan ezer gutxi aldatuko da batetik bestera. Aldiz, guretzat zortzi ordukoa ordez, ordu beteko bidaia izan daiteke. Bisita duzuean bisita duzu. Ezin duzu besterik egin. Presoak ez dira horretaz jabetzen, berdin-berdin edukiko baitituzte bisita kopuru berberak. Moduluko erregimenak ez dira aldatzen. Zentzugabea da presoak urrun edukitzea.

T.R.: Eta ezin duzu ezer esan, bestela zigortu egiten zaituzte.

Beste preso baten familia bati bisitara sartzan uzten ez ziotelako kexatu zen Jabiren aita, eta zigortuta egon zen sei hilabetez bisitak egin ahal izan gabe. Kartzelako itxaron gelara sartzan naizenean erne jartzen naiz, edozer gauza espero dezakezulako. Baina ondo eramaten dugu, familia oso batuta dagoelako. Kantatu egiten dugu, txisteak kontatzen ditugu, barre egiten dugu. Eta etsaia hortaz ohartu da, eta ezin du sinetsi. Kordobako preso batzuk ez dituzte bisitak jasotzen, eta euskal presoek etengabe jasotzen dituzte, kilometroak kilometro.

Gallagak zazpi urte egin ditu preso Frantzian. Kontutan hartzen al dizkiote urte horiek?

M.G.: Ez. Saiatu gara kontra egiten, helegiteak jarrita, baina ez dago aukerarik.

Noiz atera daiteke kartzelatik?

M.G.: 2025. urterako du ateratzeko data. Bizitza oso bat da kartzelan. Ia 72 urterekin aterako litzake.

Gauza asko pasa dira kartzelan sartu zutenetik. 2011n ETAK jardun armatua amaitu zuen. Familian nola jaso dituzue prozesuari buruzko albiste horiek?

M.G.: Familiari dagokionean ez da ezer aldatu. Kilometro berberak egiten jarraitzen ditugu,

urte berberak itxaron beharko ditugu. Jabi ez dago gertu, Jabi ez dago kanpoan. Itxaropen asko sortu ziren, baina gero ez dira bete. Pentsatzen genuen gatazkaren gure zatia ere lasaixeago eraman ahal izango genuela, baina ez da horrela izan. Errepresioak berdin jarraitzen du, edo okerrago; *mozal legea* dugu orain.

T.R.: Gauzak okerrera doaz, urteek ez baitute zama arintzen. Eta zer egin dezakegu? Zergatik egoera hau? Gerturatzeaz hitz egiten dute. Nola ba? Kordoban egon den hamahiru urteetan ez dute isolamendu ziegatik atera ere egin.

Uste al duzue presoan aldeko mobilizazioak gora egin duela? Mugarritzat jo dute abenduan Parisen egingo duten manifestazioa.

T.R.: Eta zergatik hasi behar dute Frantziako Estatutik? Eta Espainiako Estatuak zer dio?

M.G.: Nire ustez ematen ari dira aurrerapauso nabarmenak presoan alde. Baina esango nuke norbanakoei dagokionean inplikazioa jaitsi egin dela. Prest gaude urtean bi manifestazio jendetsu egiteko, baina astero herrian kartelak

jartzea eta beste ekintza txikiak askoz ere gutxiago egiten dira. Sentsazio hori dut nik behintzat. Nik uste dut ezker abertzalearen espazio soziologikoaren kezken zerrendan presoek postu batzuk egin dutela behera. Kuadrillek presoek gutxiago hitz egiten dute.

Preso gutxiago ere badaude, izan daiteke horregatik.

M.G.: Bai, badirudi preso gutxiago egotean arazo gutxiago daudela. Baina bakarria egotea nahikoa da. Gutxiago egoteak ez du esan nahi gutxiago sufritzea. Euskal Herriak duintasuna galtzen du preso bat kartzelan dagoen egun bakoitzeko. Ezin gara konformatu eta kondena guztiak bete ditzatela itxaron, ezer gertatu izan balitz bezala.

T.R.: Erakutsi dugu Euskal Herriko sustraia ondo errotuta daudela, eta inork ez ditu erazuko. Nire familiako hiru belaunalditako kideak bisitatu behar izan ditut kartzelan. Nire aitonanik hasita; gerra zibilean atxilotu zuten. Kartzelan sartu duten azkena da nire semea. Horrek zerbait esan nahi du.

Fdz. Iradiri DPS-a kendu diote, eta Eskisabel aske geratuko abenduan

Frantziako karteletan dauden zazpi euskal presori DPS estatua kendu diote, hau da, bereziki zaindu beharreko presoak izateari utzi diote. Tartean dago Ibon Fernandez Iradi preso lasarteoriatarra. 2011n esklerosis anitza diagnostikatu zioten arren, Lannemezanen ari da kondena betetzen. Bestalde, Peio Eskisabel abenduaren 2an aske geratuko da. Uzerchen (Frantzian) ari da betetzen espetxe zigorra.



ADURIZ DE LASARTE, S.A.

BERTAN EKOITZITAKO KALITATEZKO PRODUKTUAK

- ✓ Odolkia
- ✓ Solomo antzutua
- ✓ Etxeko txorizoa
- ✓ Basurde burua
- ✓ Txistorra
- ✓ Solomoa baratxuritan
- ✓ Tripakiak, saltxitxak...
- ✓ Baserri pateak

Loidi Barren kalea 3, 20160 Lasarte-Oria
Tel: 943 36 12 78 - 943 36 16 55 - 943 36 24 51



MAiTE

ESTETIKA ARETOA

Lagundu zure azalari tenperatura kontraste handiei aurre egiten

Zure azal motarentzat tratamendu egokiena aukeratuko dugu

Uistin Kalea z/g • Lasarte-Oria • Tel. 943 37 08 45 • Zerbitzu mistoak*

**Bideo = TIEN 21 =
Lagunak**



**Etxekotresna
elektrikoetan adituak**



ZERBITZU TEKNIKO PROPIOA

Ez galdu gure eshaintzak!

**BLACK
FRIDAY**
azaroaren 20tik 24ra

Donostia etorbidea 2 • Lasarte-Oria | Tel: 943 37 31 34 | www.bideolagunak.com

"Umore onez erantzun behar dugu, besterik ez dugulako"

MAITE TOYOS ETA PELLO LIZARRAGA SANTI ARROZPIDE PRESOAREN GERTUKOAK
Santi Arrozpidek 30 urte bete ditu kartzelan. Haren gertukoek ez dute galdu laster kalean ikusteko itxaropena, baina ez dira fio. "Ez da justizia kontua, politika baizik".

Adrian Garcia

Bizitza erdia baino gehiago barrote artean eman du Santi Arrozpide lasarteoriatarak. Frankismo garaian sartu zuten preso lehen aldiz, eta 1977ko amnistiarekin askatu zuten. Baina gerora denbora gehiago eman du espetxean kanpoan baino. Hain zuzen, hilaren 14an bete zituen 30 urte preso; denbora gehien daraman euskal preso da. Tartean eman ditu egun gutxi batzuk aske. 27 urte Frantzia eta Espainiako kartzelatan bete ondoren, 2014. urte amaieran askatu zuten. 45 egunera atxilotu zuten ostera, kargu berriak aurkeztuta. Egun Topaseko espetxean dago (Salamanca, Espainia). "Bazekien atzetik etorriko zitzaizkiela, ez zuen ekipajea desegin", esan dio TXINTXARRI-ri Maite Toyosek (Ziburu, Lapurdi, 1951), haren emazteak. Pello Lizarraga (Lasarte-Oria, 1947) Arrozpideren haurtzaroko lagunak ere erantzun ditu aldizkari honen galderak. **Nola ikusi duzue Arrozpide azken bisitetan. Nola dago osasunez eta animoz?**

Maite Toyos: Osasunez oso ondo dago. Diziplina handia du; bere gorputza eta burua ondo kontrolatzen ditu, eta goizean goiz jaiki, gimnasia egin eta lana egiten du. Garrantzitsua da berarentzat zerbait egitea. Osasuna zaintzen du, eta batez ere, arreta handia jartzen du elikaduran.

Europako Batasunaren legeen arabera, kalean behar luke Arrozpidek, Frantzia emandako kartzela urteak konmutatu beharko lirakeelako.

M.T.: Ez dute onartu zigorren konmutazioa. 2014ko abenduaren 4an atera zenean, agirian jarri zioten behin betiko ateratzen zutela kartzelatik. Eta gu pozik atera ginen, eta normaltasunez hasi ginen bizitzen. Baina asmatu egin dituzte karguak, eta Europako lege horiek urratu dituzte. Bi kasu zahar aurkeztu dituzte; bere garaian baztertuak izan ziren errefuxiatu politikoaren estatusa zuelako. Eta hogeitau urte eduki dute kartzelan, baina ez dizkiote inoiz auzi horiek leporatu, ez zuten inoiz estradizioa eskatu. Kartzelatik atera direnean erabili dituzte auzi horiek berriro espetxeratzeke, nahiz eta zigorrak 30 urteko espetxealdia gainditu. Aitzakia bat bilatu nahi izan dute.

Aske geratzean pentsatu al zenuten horrelakorik gerta zitekeela?

M.T.: Bai. Seguru geunden kartzelatik ateratzean berriro sartuko zutela. Ekipajea ere ez zuen desegin. Bazekien bueltatuko zela. Ez da erraza izan; beti

"EUROPAKO BATASUNAK NAHIAGO DU ESTATUAK DEFENDATU, GIZARTEA BABESTU BAINO"

itxaropena izan dugu, justizia noizbait beteko delakoan.

Bide judizialik irekita al dago espetxeratze aginduaren aurka?

M.T.: Espainiak Europako legea bere erara interpretatu du, eta zalantza ugari sorrarazi dituzte Europako Justizia Auzitegian, Luxenburgon. Espainiak txosten bat aurkeztu behar du auzitegi horretara, eta gero ebartziko dute arrazoia nori eman. Baina oraindik ez du txostena igorri, eta, horrenbestez, Santik kartzelan jarraitzen du. Abokatuak Giza Eskubideen Auzitegira jo dute, baina erantzunak luzerako jo dezake. Eta bitartean, Espainia denbora irabazten ari da.

Mendeku zantzurik ikusi al dizkiozue espetxeratze horri?

M.T.: Ez da justizian oinarritutako erabakia. Politika da.

Pello Lizarraga: Legea dute beti ahotan, baina gero ez dute errespetatzen. Adibidez, espetxe politika aspaldi behar luke eskualdatuta EAera. Espetxe guztietan jarrita dute, buruz dakit dagoeneko: "25.2 artikulua: azken helburua da presoak gizarteratzea...". Nola nahi dituzte gizarteratu, jipoika?

Espetxean denbora gehien daraman euskal preso da. Zigorra betetzen badu, noizko espero da berriro aske geratzea?

M.T.: 1975ko zigor kodearen barruan epaitu zuten, eta, beraz, aplikatu behar zaizkion eskubideak ditu. Zigorren

beherapenarekin 2019an atera daiteke. Beharbada. Baina jurista batzuk tartean sartu dira, eta esan dute ez dituela eskubide horiek, eta, ondorioz, 2025era arte kartzelan egon behar duela. Gure abokatuak diotenez, ezinezkoa da atzerako eraginez beste neurriak aplikatzea. 2019an atera beharko litzateke, baina ezin dugu ziurtzat eman, une oro zerbait asmatzen dute eta. Europaz ere ezin fidatu gaitezke; herritar baten aurrean nahiago du estatu bat defendatu.

Sara zure bizilekutik Topas presondegira 500 kilometro inguru daude. Joan-etorrian 1.000 kilometro baino gehiago dira. Nola moldatzen zara bisitak egiteko orduan?

M.T.: Nire ahizparekin bizi naiz, eta lanean egun bateko baimena hartzen du ni eramateko. Nik ez dut gidatzen, bidaia luzea delako eta asko nekatzen naizelako. Lo joan ohi naiz. Beste batzuetan, hiru hilabeteko edo, Santiren lagunekin joaten naiz. Beti badago norbait prest nirekin joateko. Orduan Lasartera etortzen naiz lo egitera, Salamancara joaten gara, bazkaldu, eta bisita egiten dut. 19:00etan itzultzen gara, berriz lo egiten dut Lasarten, eta hurrengo egunean goiz joaten naiz etxera, abereak ditudalako zaintzeko.

Urrunago dauden espetxeetan egonda, baina, halere, bidaia luzea da.

M.T.: Askok nekatzen naiz. Adinean gora goaz, eta nik ere baditut osasun arazoak. Oso zaila egiten zait astean zehar errekueratzea. Horregatik, aldi batean pilatzen ditut hilabete guztiko bisita orduak.

P.L.: Villenara [Alacant, Espainia] 700 kilometroko bidaia egiten genuen. Eta egun batean joan-etorria egin izan dugu, 1.400 kilometro.

Bidaiairekin ekonomikoaz gain, oso kontutan hartzekoa da errepidean istripua izateko arriskua.

M.T.: Gasolina, jatekoa, autoaren mantentzea... Gutxienez bidaia bakoitzeko 150 euro dira. Askok kezkatzen da Santi bidaia egiten dugun bakoitzean, istripua izan dezakegulako. Beti eskatzen digu

"2019AN ATERA DAITEKE, BAINA BETI GAUDE PREST OZTOPO BERRIAK AURKITZEKO"

iristerakoan deitzeko. Eguraldi txarra badago, nahiago du bisitarik ez jaso, arriskua saihesteko.

P.L.: Bai, Puerto Santa Marian [Cadizen] zegoenean, bisitan zihoazen lagun batzuk izan zuten istripua, baina isilean gorde zuten, ez zutelako Santik jakiterik nahi. Bisita egiterakoan beti behartzen gaitu Maiteri deitzea, jakiteko onik itzuli garena. Buruan oso sartuta dauka hori. Orain gutxi izan du biloba bat, bi dauzka guztira, baina ez du bisitan joaterik nahi istripuak saihesteko. Lasarten bertan ikusi dugu zer arrisku duten bidaia horiek. Gainera, Santi eta Balerdi elkarrekin egon ziren Almerian. [Juanca Balerdi presoaren bi senide hil ziren istripuan 2003an, hura bisitatzea zihoazela].

Nolako eragina du dispersioak zuten bizitzan? Zer eragin du Arrozpide urruneko kartzela batean egoteak?

M.T.: Janaria alde zuzenean aurretik prestatu behar dut, abereak egun pare batez bakarrik geratzen direlako. Estres handia da. Dena antolatu, autopista hartu... Dena korrika batean egiten dugu. Bisitara sartzean lasaitzen naiz. Familia eta kartzelan direnak suntsitzea du helburu espetxe politikak. Baina umore onez erantzun behar dugu, besterik ez zaigulako geratzen.

P.L.: Nik nahiago dut bidaian lo egin eta lasaiago etorri. Igandean joatekoa nintzen, eta nekazaritza etxe bat hartuta neukan orain dela hilabete batetik. Kontua da alabari lagundu behar diodala, eta Madrilera joan behar dut. Nire alaba urrutiko dago, baina baita Santi ere, eta zerbait eskatzen duenean hara joan behar da. Orain erretiroa hartu dut, eta egunak igaro ditzaket etxez kanpo. Plan bat egiten dugunean beti begiratzen dugu nola uztartu dezakegun Santiren bisitarekin.

Haurtzarotik ezagutzen duzue elkar. Nola aldatu du harremana horrenbeste urteetako kartzelaldiak?

P.L.: Etxe berean jaio ginen, eta elkarrekin joan ginen eskolara. Gazte garaian mendiko zaletasuna zuen, eta Tolosan egiten zuen bizitza. Orain lehen baino harreman estuagoa dugu. Atxilotu zutenean, Fresnesen (Ile-de-France, Frantzia) atxiki zuten, eta ni ez nintzaion joan



Maite Toyos eta Pello Lizarraga, aste honetan, Okendo plazan. TXINTXARRI

bisitatzera. Geroztik bai, Bois d'Arcy, Osny eta Saint Martin de Ren egona naiz.

M.T.: Ni harrিতuta geratu naiz Lasarten topatu dudana adiskidetasunarekin.

Harreman hori indartu egin da, beraz, kartzelaldian?

P.L. Oso ondo eramaten gara orain. Bisitako lagunen zerrendak aldatu behar dira sei hilabetero, eta hori nik kudeatzen dut. Horregatik, nirekin haserretzen denean esaten diot lagunik gabe geratuko dela.

Asko eztabaidatzen al duzue bisitetan?

P.L.: Oso zorrotza da. Askotan esaten digu gaizki egiten ari garela gauzak. Ez politikan bakarrik, beste alor askotan ere. "Baina zer ari zarete egiten,

hori ez da horrela", errieta egiten digu. Guk esaten diogu: "Badakik, atera eta zuzendu gauzak". Horrenbeste urte egon da barruan, ezen batzuetan ez dituela ulertzen kanpoko kontuak, edozein txikikerik denbora eskatzen duela. Agian arrazoi izango du, eta gu ardi batzuk bihurtu gara.

M.T.: Berak bere buruan gauzak sistematikoki antolatzen ditu. Nik esaten diot kanpoko gauzak aldatu egiten direla. Telebistan gauzak nola aldatu diren ikusten duela erantzuten du.

ETAk jardun armatua utzin zuen 2011n, eta aurten armagabetu da. Halere, presoan alorlean hasiera bateko itxaropenak ez dira bete. Nola eman daitezke pausoak presoan aldeko borrokan?

M.T.: Dirudienez gauzak zertxobait mugitzen ari dira Frantzian. Borroka luzea da, batez ere barruan daudenentzat eta senideentzat. Baina itxaropena ez dugu galdu denak etxean ikusteko. Erabakia politikoa da, ez da justizia kontua. Baina beti gaude prest oztopo gehiago aurkitzeko. Frantzia hasita Espainiak beste ikuspegi bat har dezake, baina ikusi dugu estatuak nola erantzun duen Katalunian. Beldurra ematen du horrek, horma bat dugu aurrean, eta ez du konponbiderik nahi.

P.L.: Eta ez hori bakarrik. Nahiz eta borroka armatua amaitu, salbuespen legeek jarraitzen dute. Hor daude Altsasukoak, adibidez.

Zozketa! txintxarri

Pirritx, Porrotx eta Marimotots-en lan berriaren aurkezpen emanaldira joan nahi duzu?

TXINTXARRI-n sarrerak zozkatuko ditugu!



Eman izena azaroaren 27a baino lehen txintxarri@txintxarri.eus, 943 37 14 48an, edota Ttakunen bulegoan. Whatsapp bidez ere eman dezakezu izena 688 68 65 10an.

Haur motxiladunen zama

Haur eta nerabeen giza eskubideen nazioarteko eguna ospatuko dute datorren astelehenean. 1959. urtetik ospatzen da, Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak haurren eskubide unibertsalak finkatu zituelako egun horretan. Denbora igaro izanagatik, ordea, oraindik lan asko dago egiteko alor horretan. Izan ere, dispersioak ondorio kaltegarriak

sortzen ditu haurren bizitzan eta garapenean. Eta gaztetxoek giza eskubideen urraketa salatzen, azaroaren 20a baliatu du Lasarte-Oriako Sarek: manifestu bat prestatu dute, eta hezkuntza alorreko norbanakoei deitu diete atxikitzen. lasartekosare@gmail.com helbide elektronikoan eman daiteke babesa, izen-abizenak jarrita eta hezkuntza alorrean betetzen den zeregina zehaztuta.

Hurrengo astelehenean irakurriko dute manifestu hori, Manuel Lekuona kultur etxean, 18:00etan. Gero *Motxilaren umea filma* emango dute, eta Araitx Zubimendirekin solasaldia egingo dute. Goizean Donostiako Psikologia Fakultatean irakurriko dute gurasoak espetxean dituzten haurrei buruzko txostena. Fakultate horretako Fernando Olabarrieta eta Luixa Reizabal irakasleek argitaratu zuten txosten hori 2014an.



943 37 14 48 / 688 68 35 10
 Geltoki kalea 4, Lasarte-Oria
 txintxarri@txintxarri.eus

Erregionala, arnasa hartuz

Uzta oparo zein eskasak jaso dituzte Ostadar SKTren futbol taldeek asteburuan. Nabarmentzekoa Erregional Preferenteak Urnietaren aurka erdietsitako garaipena: 1-3. Arnasa hartu dute, eta sailkapenean gora egiteko lehian sartu dira, bete-betean

Txintxarri

Azaroan gaude oraindik, eta finalez hitz egiten hasteko goiz da oraindik, baina Erregional Preferenteak asteburuan jokatu duen neurketaren garrantzia ez da txikiagoa. Sailkapenean zuloan sartuta daude Asier Aizpurua eta Ander Rekondoren mutilak, eta maila galtzeko arriskua uxatu nahi badute, hiru pila behar dituzte puntuak. Hainbat jardunaldi eta gero, sari potoloa eskuratu dute, Urnietari 1-3 irabazita.

Baikorrenak ere ez luke imajinatuko horrelako hasierarik. Lehenengo 15 minutuetan 0-2 aurreratu ziren urdin-beltzak, Andoni Diez eta Ivan Ruizen golei esker. Oso serio zelairatu zen Ostadar: joko zuzenaren aldeko apustua egin zuen, eta aldaratze guztiak hartu. Oso goian presionatu zuten, eta baloi bat baino gehiago lapurtu. Urnietari oraindik aldagelan zegoela zirudien.

Lehenengo zatiaren gidoia pixkanaka aldatuz joan zen, ordea. Urnietari gero eta arrisku gehiagorekin iristen hasi zen Iñigo Otaegiren ate ingurura, eta ezker hegaletik egindako erdiraketa bat ederki



Emakumezkoen F-8 taldeak aurten ekin dio konpetitzaari. TXINTXARRI

sarerratu zuen etxeko taldeko aurrelariak. Sufritu egin behar izan zuen, baina 1-2 irabazten joan zen Ostadar atsedendira.

Partida erabakita uztera irten ziren lasarteoriarrak bigarren zatira, eta lortu zuten, Iker Artetxek area kanpotik sartutako gol ikusgarriari esker. Iker Herrerak luze jokatu zuen Artetxekin; honek ikusi zuen aurreratuta zegoela atezaina, eta buruz errematatu zuen, area kanpotik, baloia loratu eta 1-3koa sartzeko. Partidaren hondarrea Otaegi kanporatu

bazuten ere, Ostadarrek aldeari eutsi zion eta urrezko hiru puntu zakuratu zituen. Zazpi ditu orain.

Helburua, kirolaz gozatzea

Urtetik urtera talde gehiago ateratzen ditu Ostadarrek. Lortu du emakumezkoen harrobiko talde bat sortzea, infantil mailako F-8 ligan. Kirolaz gozatzea eta ikastea dute xede jokalariz gazteek. Lortu dituzte emaitza hobek eta okerragoak, baina nabaritzen da jardunaldiz jardunaldi hobera doala taldea.



Benjamin eta aurrebenjamin mailako igerilariak ederki hasi dute denboraldia. BURUNTZALDEA IKT

Buruntzaldea IKTko txikiak ederki lehiatu dira Andoainen

Alebinek ligako bigarren jardunaldia jokatu zuten; aurrebenjaminak eta benjaminak, aldiz, denboraldia hasi dute

Txintxarri

Andoingo Allurralde kiroldegian jokatu dute Buruntzaldea IKTko aurrebenjaminak eta benjaminak denboraldiko lehen proba, Test/Ligako jardunaldia.

Igeriketa taldeko 41 haurrek parte hartu dute saio honetan; 2009. urteko igerilariarentzat lehenengo txapelketa izan da. 50 metro estilo libreak egin dituzte eta 6x25 m. metro bizkar errelebo mistoa, 2008. urtekoekin batera. "Urduritasunak medio, egin beharrekota benetan primeran egiten jakin dute," esan du Borja Apeztegia entrenatzaileak.

2008ko urtekoek aipatu errelebo eta 100 metro libreko proba jokatu dute; 2007 urteko mutilek, 50 metro

bizkar eta 100 metro libre probak, eta 2006 urteko neska-mutilek, azkenik, 50 metro bizkar eta 200 metro libre probak. Adin tarte horietan lehiaketa emaitzak baino gehiago, kontuan hartzen dituzte arautegia ezagutzea, arauak betetzea eta igeri egiteko modu egokia lantzea.

Bigarren jardunaldia

Alebinek ligako bigarren jardunaldian Buruntzaldea IKTko hemezortzi haur izan dira lehian, eta 200 metro bizkar proba eta 100 metro bular proba jokatu dituzte, baita 8x50 metro estilo libreko errelebo mistoa ere. Erreleboan "lehia estuaren ostean" hirugarren amaitu dute.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
ERREGIONAL PREFERENTEA
Ostadar SKT - EAS 08 Larunbata. 17:15. Michelinen.
LURRALDE MAILA
Zarautz - Ostadar SKT Igandea. 10:00. Asti-Txiki, Zarautzen.
JUBENILEN OHOREZKO MAILA
Urola - Ostadar SKT Igandea. 11:30. Argixao, Zumarragan.
JUBENILEN LEHENENGO MAILA
SANSE B - Ostadar SKT Igandea. 14:30. Cesar Benito, Donostian.
KADETEEN OHOREZKO MAILA
Ostadar SKT - Real Union SAD Larunbata. 15:00. Michelinen.
KADETEEN LEHENENGO MAILA
Billabona - Ostadar A Igandea. 11:00. Arratzain, Billabonan.
Ostadar B - Lazkao Larunbata. 10:30. Michelinen.

INFANTIL TXIKIA SAILKATZE FASEA
Ostadar - Ordizia Larunbata. 13:00. Michelinen.
LEHEN INFANTIL ESKOLARTEKOA
Ostadar B - Orioko Larunbata. 11:30. Michelinen.
Danena - Ostadar C Larunbata. 10:15. Elbarrena, Zizurkilen.
Ordizia - Ostadar A Larunbata. 09:30. Altamira-anexoa, Ordizian.
ARETO-FUTBOLA
ESTATUKO HIRUGARREN MAILA
Obatarbe - Antonio Aroztegia Eguzki Larunbata. 18:15. San Ignazio kiroldegia, Bilbon.
GIPUZKOAKO LEHENENGO MAILA
Alustiza autobusak Orioa - Ventanas Isu Leihoak Eguzki Larunbata. 18:00. Karela kiroldegia, Orion.
GIPUZKOAKO BIGARREN MAILA
Cecilia Frutadenda Eguzki - Goierri KE Ostirala. 20:50. Kiroldegian.

SENIOR NESKAK
Eskoriatza - Trumoi Taberna Eguzki Igandea. 12:00. Eskoriatzan.
JUBENILEN GIPUZKOAKO LIGA
Bar Lasarte - Zarautz KE 2 Igandea. 11:15. Kiroldegian.
KADETEEN GIPUZKOAKO LIGA
Plazaola Argazkiak Aloña - Balerdi Harategia Larunbata. 10:00. Zubikoa kiroldegia, Oñatin.
SASKIBALOA
SENIOR LEHENENGO MAILA
Ostadar SKT - Bera Bera Gros Larunbata. 16:00. Kiroldegian.
SENIOR HIRUGARREN MAILA
Ostadar SKT - Grupo EME Oiarso Larunbata. 18:00. Kiroldegian.
ERRENDIMENDU JUNIORRAK
Easo Zelaia - Ostadar SKT Igandea. 12:00. Benta Berri, Donostian.


PARTIZIPAZIO JUNIORRAK
Ostadar SKT - TAKE Orbinox Larunbata. 09:30. Kiroldegian.
ERRENDIMENDU KADETEAK
Ostadar SKT - Atletico San Sebastian Andatza-Tecnun Larunbata. 11:00. Kiroldegian.
PARTIZIPAZIO KADETEAK
Internacional - Ostadar SKT Larunbata. 12:30. Mons kiroldegia, Donostian.
INFANTIL HANDIAK
Atletico San Sebastian - Ostadar SKT Larunbata. 09:00. Aiete, Donostian.
INFANTIL TXIKIAK
Zast Txiki - Ostadar SKT Larunbata. 10:30. La Salle, Zarautzen.
PILOTA
PROFESIONALAK
Jaka eta Rezusta - Arteaga II.a eta Larunbe Igandea. 16:45. Bizkaia pilotalekuan. 4 t'erdiko finalaren aurreko partida izango da.

LEHEN URTEKO INFANTILAK
Zestoa 1 - Intza 2 Ostirala. 18:30. Gurutzetza, Zestoa.
Intza 1 - Hernani 4 Ostirala. 19:00. Michelin pilotalekuan.
Intza 3 - Hernani 9 Ostirala. 19:00. Michelin pilotalekuan.
Hernani 3 - Intza 4 Ostirala. 20:00. Hernanin.
BIGARREN URTEKO ALEBINAK
Intza 3 - Gazteleku 2 Ostirala. 19:00. Michelin pilotalekuan.
Gazteleku 4 - Intza 2 Ostirala. 19:15. Ikastola, Andoainen.
Gazteleku 8 - Intza 4 Ostirala. 19:15. Ikastola, Andoainen.
ERRUGBIA
OHOREZKO B MAILA
Bera Bera - Babyauto Zarautz KE Larunbata. 16:00. Donostian.
18 URTE AZPIKOA
Unibertsario Bilbao - Babyauto Zarautz KE/Beltzak RT Larunbata. 14:30. Bilbon.
16 URTE AZPIKOA
Unibertsario Bilbao - Babyauto Zarautz KE/Beltzak RT Larunbata. 13:00. Bilbon.




GOIEGI HOMES II

**Zozketarako izena emateko epea irekia dago
Apunta Zaitetz! Azaroaren 20 arte**



Terraza edo lorategia
etxebizitza guztietan.



Sukalde erabat
hornituak.



Garaje
itxiak.

Finantziatzaia:  **CaixaBank**



Lasarte-Oriatik ia 200 lasterkerik hartu dute parte aurtengo Behobia-Donostia lasterketan. Horieta hainbatek tren hartu zuten irteera punturaino joateko, irribarra ahoan zutela. ISAAC FARRÉ RICO

170 herritar iritsi dira Bulebarrera

Behobia-Donostia lasterketan parte hartzeko asmoz, ia 200 herritarrek eman dute izena aurtengoa. Datu ofizialen arabera, 170 bat iritsi dira helmugara. Guztira ia 26.000 korrikalarik parte hartu dute, eta mila gutxiago iritsi dira bukaeraraino; guztien artean azkarrenak Carles Castillejo eta Aroa Merino izan dira, iazko proban bezala



David Martin izan da herritar azkarrena, 01:10.47ko denborarekin. TXINTXARRI

Txintxarri DONOSTIA

Korrika egiteko giro aparta egin du: tenperatura freskoa, zeru hodeitsua, eta ia euririk ez (10:30ak aldera bota ditu tanta batzuk, baina seguitan geratu du). 31.000 bat lasterkerik egin dute aurtengo Behobia-Donostia. Marka egitera joan dira asko, eta egunaz gozatzera beste hainbat; tartean, ia 200 herritar (gehienak korrika, eta bi patinekin irristaka). Datu ofizialen arabera, 169 iritsi dira Bulebarreko helmugara.

Carles Castillejo kataluniarra eta Aroa Merino kanariarra izan dira irabazleak, iaz bezala. Ordubeten eskas eta segundo batzuk behar izan ditu Castillejok 20 kilometro pasatzeko ibilbidea osatzeko. Minutu batzuk beranduago iritsi da Merino: erlojua 01:11.05 segundotan geratu du.

Merino baino apur bat lehenago helmugaratu da David Martin, Lasarte-Oriako atleta zaildua. Bera

izan da herritar azkarrena: 20 kilometroak 01:10.46ko denboran egin ditu. Jon Presa handik gutxira iritsi da, 01:11.39ko denborarekin. Emakume azkarrena Maite Salazar izan da. Ordu eta erdi pasatxo behar izan du ibilbidea bukatzeko (01:32.17).

Patinatzaileen modalitatean, aurrez izena emandako bi lasarteoriatarak iritsi dira Bulebarrera. 35. postuan helmugaratu da Iker Turrillas (53:15), eta 112.ean Iñigo Suberbiola (01:04:28).

Herriko hainbat gaztetxo ere animatu dira Herrerako biribilgunetik ateratzen den Behobia Gaztea lasterketan parte hartzera. Datu ofizialen arabera, hamasei neska-mutilek bukatu dute proba.

Helburu ezberdinak

Martin eskarmentu handiko korrikalaria da. Behobia-Donostia lasterketa izan du aurtengoa, eta lasterkariak berak azaldu duenez,

horrek balio izan dio lasterketa ongi amaitzeko. Izan ere, entrenamendu aldetik urte zaila izan du. "Aurtengoa minarekin egon naiz; ezker txorkatila ukitututa dut, eta saio indartsuak egitean minbera izaten dut". Horrez gain, denbora gehiegirik ez du izan entrenatzeko.

Horiek kontutan hartuta, ez du lasterketa planifikatu. "Atera naiz jakin gabe nola bukatuko nuen". Lehen hamabost kilometroak 3:30 minutura egin du kilometroa, baina hortik aurrera hasi da sufritzen. "Amaietan asko sufritu dut. Gehienez hamabi kilometroko entrenamenduak egin ditut, eta nabaritu dut hori lasterketan. Taldearen eritmoari eusten saiatu naiz".

Dudarik gabe, Martinek ondutako marka ez da nolana hikoia. Halere, korrikalariak azaldu du denborak bere testuinguruan jarri behar direla. "Erlatiboa da. Beste batentzat

izan daiteke marka ona, baina nire denbora onena 1:04 da. Eta urrutik geratu naiz denbora horretatik, zazpi minutu gehiago egin ditut".

Maite Salazarrek, Lasarte-Oriako lehen emakumeak, berriz, bere marka bederati minututan hobetu du. "Oso pozik nago. Nire marka hobetzea nuen buruan eta ez nuen espero hain ongi egitea".

Izan ere, izterreko lesio bat izan du. "15. kilometroan izterrean mina sumatu dut. Baina bestela ez dut arazorik izan".

Seigarren Behobia izan du. Ez du proba bereziki prestatzen. "Urtean zehar astean bi aldiz kros herrikoiak prestatzen dituen talde batekin entrenatzen dut Donostian, eta nire kabuz ere korrika egiten dut".

Herritarren artean, Fede Otaegi dugu lasterketan beterranoena. Aurtengoa 34. Behobia-Donostia izan du. "1983tik urtero parte hartu dut".

Aurtengoa 01:42:02 denbora egin du, eta nabarmendu duenez, helburu desberdinak daude Behobia egitean. "Nik orain ez dut buruan denbora egitea. Lasai joan eta disfrutatzea da kontua".

Behobia-Donostia lasterketa gogorra dela ere aipatu du. Hala ere, urteen poderioz bere indarrak ongi neurtzen ditu, eta horregatik arazorik ez du izan helmugaratzeko.

Cecilia Juarezek, berriz, bigarren Behobia-Donostia bukatu du, eta oso pozik dago egindako denborarekin: 01:42.

Gaintxurizketako aldapari beldur zion, baina Miracruz gainako igoera egin zaio zailena. "Kilometro asko egin dituzte, eta aldapa luze egiten da".

Esperientzia ahaztezina dela aipatu du, errepikatzen modukoa. "Lasterketako giroa paregabea da eta horrek korrika egiten laguntzen dizu".


ZORION AGURRAK



Urko eta Odei
Zorionak Urko eta Odei, muxu pila bat familia guztiaren partetik. Zorionak!



Leire
Zorionak printzesa!!!
Hamahiru muxu pottolo pottolo, amatxo, aiatxo eta Iraiaren partetik. Oso ondo pasa.



Hodei eta June
Zorionak maitiak!!
Oso ondo pasa zuen 10. urtebetetzean!



Nika
Zorionak eta jarraitu horrela! Muxu potolo denen partez! Muakaaa!



Irati
Urte askuan prexioxa!
Oraindik ez dakizula nola ospatu?
Bizkotxoaren zain gaude. Maite zaitugu!



Anartz
Kaixo maitia.
Zorionak zure 5. urtebetetzean. Asko maite zaitugulako muxu asko bihurritxo. zorionak!!!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; bi bide dituzu Txintxarriren bidez zoriontzeko:

Internet

Txintxarri.eus-en

txintxarri.eus/zorionagurra eta [Bidali zure zorion agurra](http://Bidali_zure_zorion_agurra) formularioa bete.

Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali

txintxarri@txintxarri.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ez ahaztu irudia atxikitzeaz.

*Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurra bakarrik iragarriko ditugu.
Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.*

OHARRAK

Lodosara txangoa

Biyak Bat elkarteak kideak Lodosara doaz, azaroaren 23an.

Goizeko 8:00etan aterako dira Lasarte-Oriatik. Pikillo piperren kontserba-entrega eta ardo bodega bat bisitatuko dituzte.

Bazkideek 35 euro ordaindu behar dituzte izena ematerakoan; bazkide ez direnek, aldiz, 40 euro.

Gabonetako loteria

Biyak Bat elkarteak bere bazkideentzat Gabonetako loteria du. Zerbakia 71.580 da.

Nahi duenak elkarteak bulegoan izango du eskuragarri 10 eurotan. Azaroaren 30a baino lehen jaso behar da.

66 urteko kintoen afaria

Azaroak 25ean, El jardin jatetxean 66 urteko kintoen afaria egingo da. Menua 36 euro dira, musika barne.

Izena emateko 681 160 548 (Maluixa) telefono zenbakira mezu bat bidali behar da, azaroaren 22a baino lehen.

'Kontent-Tú' programa azaltzeko saioa

Kontent-Tú Eguneko Arreta Zerbitzuaren irekiera dela eta, azaroaren 21ean, hurrengo asteartean, saio informatibo bat egingo dute Manuel Lekuona kultur etxean, 18:30ean.

GUTUNAK

Udalak berriro ere tarifa finkoa ezarri du, birziklatzearen eta birziklatzaileen kaltetan

LASARTE-ORIAN AIRE GARBIA

Aire Garbiak 5. edukiontzia erabiltzaileei zabor-tasan %20 deskontatzeko egin duen proposamena atzera bota du udalbatzak, eta, horren ondorioz, 2018an berriz ere tarifa finkoa egongo da indarrean. Beraz, birziklatzaileek eta ez birziklatzaileek berdin-berdin ordainduko dute. Hori antiekologikoa ez ezik sozialki bidegabea ere bada, arduraz jokatzaren duten birziklatzaileak zigortzen dituelako, eta axolagabeak, berriz, saritu. Izan ere, birziklatzaileek, konpromiso

gehiago hartzeaz gain, tarifa finkoaren bidez besteen axolagabekeria ere finantzatzeko dute. Bi dira alkatearen taldeak deskontu-eskaerari ezetz esateko erabili dituen argudioak:

1. - 5. edukiontzia duela gutxi ezarri zen eta oraindik goiz omen da emaitzak behar bezala aztertu ahal izateko.
- 2.- Deskontuak egiten hasita, deskontu globalak nahiago omen dituzte; hau da, herrian gaikako bilketan maila jakin bat lortuz gero, deskontu bat egin liteke zabor-tasan bertan, herritar guztiei, ez soilik birziklatzaileei.

Goazen puntuz puntu...

- 1.- Lasarte-Orian hondakinak gaika biltzea ez da herritar

guztien ardura, baizik eta alor horretan konpromiso gehien dutenei udalak eskaintzen dien aukera. Gauzak horrela, deskontua birziklatzaileek egiten duten lana aitortzeko modua baino ez da. Deskontua jende gehiago birziklatzera animatzeko pizgarria ere izan daiteke, eta, horrexegatik hain justu, iaz ere lasai asko aplikatu zitekeen, 5. edukiontzia ezartzeko kanpainaren osagarri gisa. Baina, esan bezala, deskontua, oroz gain, birziklatzaileei egiten zaien aitortza da, eta, alde horretatik, 5. edukiontzia emaitzetatik zeharo independentea da. Gainera, zenbat denbora gehiago behar du udalak 5. edukiontzia emaitzak ebaluatzeko? Aurtengo datuen arabera, gaikako bilketa

batez beste %45ekoa da. Udalak ba al du datozen hilabeteetan sistema hobetzeko neurriak hartzeko asmorik? Guk dakigula ez. Beraz, aldaketarik ezean, datorren urteko batez bestekoa aurtengoaren antzekoa izango da, %1 gora edo %2 behera. Baina, batez bestekoa edozein dela ere, tarifa finkoak ez dio antiekologikoa eta sozialki bidegabea izateari utziko. Beraz, alkatearen taldeak darabilen lehen argudioak argudio baino gehiago aitzakia dirudi.

- 2.- Deskontu globala egitea, berriz, tarifa finkoarekin jarraitzea da. Tarifa finko merkexegoa izango da, baina tarifa finkoa. Esfortzua eta konpromisoa berriz ere birziklatzaileen esku geratuko lirarteke, eta hauek axolagabeek

bezalaxe ordaintzen jarraituko lukete.

Bukatu aurretik, informazio garrantzitsu bat: udalbatzak hartutako erabakiaren arabera, 2018an zabor-tasa %5 garestituko da, hau da, KPIren (1,2) oso-oso gainetik. Iaz, berriz, %4 garestitu zen, KPIren (1,3) oso-oso gainetik ere. Ez birziklatzaileek, etxean hondakinak gaika biltzen ez duten neurrian, gero eta hondakinak tratatzeko sistema garestiagoen beharra eragiten dute (lehengaiak xahutzeaz eta gehiago kutsatzeaz gain). Baina birziklatzaileek berdin-berdin ordaindu beharko dituzte udalak sistema garesti horiek finantzatzeko zabor-tasan erabaki dituen igoera "potenteak".

Urte hasieran, udalak honako leloa jarri zuen balkoian: "Lasarte-Oria birziklapenaren alde". Garbi dago hitzak eta ekintzak ez datozela bat.

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

ERRENTAN EMAN

Auto eta motoak gordetzeko garaje marra alokatzen da, Esperantza plazan. 659021945

ERRENTAN HARTU

Alokairuko etxe baten bila nabil. Nahiago dut Lasarte-Orian, baina Zubietan edo Usurbilen ere izan liteke. 630 682 716.

LANA

ESKAERA

Etxeko lanak, garbiketa lanak edo adinduak zainduko nituzke. 674 957 145.

Emakumea eskaintzen da haurrak eta helduak zaintzeko. Gauak barne. 675830206.

Etxean garbiketa lanak egin edo pertsona nagusiak zainduko nituzke interna moduan, orduka

edo gauetan. Harremanetarako, 634 278 198.

Emakumea eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko. Esperientzia du. Telefonoa: 687 675 505.

Neska bat eskaintzen da adineko jendea zaintzeko, interna gisa. 600 897 758

JAIOTAKOAK

Erick Javier Montero Rosales. Azaroaren 9an.

June Mateos Pascual. Azaroaren 7an.

Anne Goenaga Pizon. Urriaren 31an.

HILDAKOAK

Jose Luis Lopez Ruiz "Rioja". Azaroaren 15ean.

Julio Muñoz Garcia. Azaroaren 15ean.

Julio Linde Castarnado. Azaroaren 10an.

Ismael Grey Mota. Azaroaren 10an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 17 ORUE

Larunbata, 18 ACHA-ORBEA

Igandea, 19 ACHA-ORBEA

Astelehena, 20 DE MIGUEL

Asteartea, 21 LASA

Asteazkena, 22 GIL

Osteguna, 23 ACHA-ORBEA

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00

ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52

ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49

DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51

LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74

GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29

URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67

GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Echeveste Elosegui: Elkano Kalea 9, Hernani/ 943 55 20 87

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.

Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

ESKELAK

ESKELAK JARTZEKO:
Txintxarri erredakzioan
943 37 14 48

- ▶ Hileta egunean eskela txintxarri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Txintxarri paperean 90€
- ▶ Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + txintxarri.eus-en: 90€
- ▶ Eskela mota guztiak paperean: 80€

Txintxarri: doan eta euskaraz Lasarte-Oriako etxe guztietan

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629

EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184

KIROLDEGIA: 943 376 182

MANUEL LEKUNA KULTUR ETXEA: 943 376 181

GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179

KIUB: 943 361 605

UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621

MUNTERI AEK: 943 372 863

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960

DYA: 943 464 622


GURUTZE GORRIA: 943 363 953

UDALTZAINAK: 943 362 442

ERTZAINZA: 943 538 840

SOS DEIAK: 112

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:00	12:10	12:15	12:20
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Erredakzioa

Nerea Elizagirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Noriega eta Adrian Garcia.

Publizitatea

Aranbix Zulaika.

Laguntzaileak

Unai Muñoa, Gorka Lasas,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Gorka Alvarez,
Jexux Artebe, Maider Galardi,
Mikel Yarza, Nerea Segura eta
Aizpea Amas.

Informatikoa

Asier Aztiria.

Administraria

Nerea Garziarena.

PUBLIZITATEA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

LAGUNTZAILEAK



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 17

USURBIL Gazte Eguna

Gazte Egunaren hasiera: Usurbilgo gazteen kezken inguruko mahai-ingurua. *Sutegi, 22:30ean.*

ANDOAIN Zarzuela

Santa Zezilia zikloaren barruan, lehenengo emanaldia eskainiko da: *Si las mujeres mandasen zarzuela. Bastero kulturgunea, 21:30ean.*

LARUNBATA 18

LASARTE-ORIA Bazkaria

Burunzpe Sasoeta Zumaburu Guraso Elkarteak antolatuta, *Multikultur bazkaria* egingo dute. Bertan, hainbat jatorritako jakiak dastatzeaz gain, jolasak ere egingo dituzte, eta karaokea izango da. 13:00etan, jatorri askotariko ohiko jakien elkartruke eta dastaketa. 15:30ean, jolasak. 16:30ean, kultur aniztasun karaokea (2KN kafetegian). *Sasoeta ikastetxea, 13:00etan.*

LASARTE-ORIA Gazte gaua

Areto-futbol eta saskibalo ginkanak jokatu dira. Izena eman behar da *Kiroldegia, 20:00etan.*

LASARTE-ORIA Zonbi gaua

Zonbiz beteko da Lasarte-Oria larunbat gauean. Parte hartzaileek izurriteari aurre egin beharko diete. Rol jokoa herrian barrena egingo dute, eta goizeko 06:00ak arte iraungo du. *Michelingo kirolgunea, 23:00etan.*

USURBIL Irrien sukalde txokoa

Antxomolantxak antolatuta, haurrek sukalde txokoaan pizza, taloak, zurrupakiak edo pintxoak egiten ikasiko dute. *Aginagako ludoteka, 17:30ean.*

USURBIL Gazte Eguna

Gazte eguna antolatu dute Usurbilen, eta zenbait ekintza izango dira. *19:00etan*, Eonian elektrotxaranga. *21:30ean*, afaria. Txartelak Aitzagan salgai. *00:00etan*, kontzertuak: Kezka, Pavloven Zakurrak eta DJX2R Seymar. *Usurbil, 19:00etan.*



LASARTE-ORIA Kultur arteko festa Burunzpe Sasoeta-Zumaburu Guraso Elkarteak antolatuta, Multikultur bazkaria izango da larunbatean. Egunari hasiera emateko, jatorri ezberdinetako ohiko jakien elkartrukea eta dastaketa egingo da. Horren ostean, jolasetan parte hartzeko aukera izango dute etxeko txikienek, eta egunari behar bezalako amaiera emateko, karaokea egingo da 2KN kafetegian. *Sasoeta ikastetxea, 13:00etan.*

ANDOAIN Musika emanaldia

Santa Zezilia zikloaren barruan, bigarren emanaldia eskainiko da: *Haize-hari bikotea. Bastero kulturgunea, 20:00etan.*

IGANDEA 19

URNIETA Antzerkia

Ttanntaka taldearen eskutik, *Giltzadun etxea* (gaztelaraz) antzezlanak ikusteko aukera izango da. *Sarobe, 19:30ean.*

ASTELEHENA 20

LASARTE-ORIA Ekitaldia

Gurasoak espetxean dituzten umeen eskubideen alde, zenbait ekintzetara deitu du Lasarte-Oriako Sarek: *18:00etan*, motxiladun umeen eskubideen aldeko manifestuaren aurkezpena. *18:30ean*, *Motxilaren umea* filmaren proiektzioa eta solasaldia Araitx Zubimendiarekin. *Manuel Lekuona, 18:00etan.*

ASTEARTEA 21

LASARTE-ORIA Literatura

Irakurle Txokoaren hileroko hitzordua izango da. Joseba Sarrionandiaren *Lapur banden etika ala politika* lana irakurriko dute. *Ttakunenea, 18:30ean.*

ASTEAZKENA 22

USURBIL Santa Zezilia eguna

Musikalean kalejira eta kontzertua egingo da: *18:00etan*, Kalejira. Zumarte Musika Eskolatik abiatuta: Trikitixa-pandero taldea, Musika Txokoko eta abesbatzako ikasleekin lagunduta eta Txaranga. *19:00etan*, Sutegin: Musika Eskolako talde instrumentalak. *Usurbil, 18:00etatik aurrera.*

LASARTE-ORIA Solasaldia

Lasarte-Oriako Talde Aktibistak errefuxiatuen inguruko solasaldia antolatuko du, Zaporeak eta Ongi Etorri Errefuxiatuak elkarteetako hizlariekin. *Villa Mirentxu, 19:00etan.*

OSTEGUNA 23

LASARTE-ORIA Bertso solasaldia

Euskal Herriko Bertso Txapelketa finalerditar iristear da, eta final laurdenak komentatuko dituzte Miren Artetxek eta Jone Miren Hernandezek, ikerketaren ikuspuntutik. *Arrieskalleta elkarte, 19:30ean.*

LARUNBATA 25

LASARTE-ORIA Literatura

lehiaketaren sari banaketak Aurtengo literatura lehiaketaren sariak banatuko dituzte. *Manuel Lekuona, 12:00etan.*

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA

Selfie

Ostirala: 22:00.

Amarillito (haurtzako filma)

Igandea: 17:00.

Toc toc filma

Igandea: 19:30.

USURBIL

URBIL

American Assassin

Ostirala: 22:40, 00:55

Larunbata: 22:40, 00:55

Igandea: 22:40

Annabelle: Creation

Ostirala: 00:45

Larunbata: 00:45

Deep

Ostirala: 15:50, 18:20

Larunbata: 15:50, 18:20

Igandea: 15:50, 18:20

El pequeño vampiro

Ostirala: 15:50

Larunbata: 15:50

Igandea: 15:50

El secreto de Marrowbone

Ostirala: 16:10,

18:00, 20:20,

22:40, 00:55

Larunbata: 16:10,

18:00, 20:20,

22:40, 00:55

Igandea: 16:10,

18:00, 20:20,

22:40, 00:55

Feliz día de tu muerte

Ostirala: 16:15,

18:30, 20:45,

22:50, 00:55

Larunbata: 16:15,

18:30, 20:45,

22:50, 00:55

Igandea: 16:15,

18:30,

20:45, 22:50

Handia

Ostirala: 20:00

Larunbata: 20:00

Igandea: 20:00

Liga de la Justicia

Ostirala: 16:45,

18:00, 19:15,

20:30, 22:00,

23:00, 23:30

Larunbata: 16:45,

18:00, 19:15,

20:30, 22:00,

23:00, 23:30

Igandea: 16:45,

17:45,

19:15, 20:15,

22:00, 22:45

Operación Cacañete 2. Misión: Salvar el parque

Ostirala: 17:40

Larunbata: 18:15

Igandea: 18:15

Oro

Ostirala: 15:45, 18:05

Larunbata: 20:20,

22:35, 00:50

Igandea: 20:20,

22:35

Toc Toc

Ostirala: 21:35, 23:45

Larunbata: 21:35,

23:45

Igandea: 21:35

Thor: Ragnarok

Ostirala: 16:30, 19:10,

21:50, 00:30

Larunbata: 16:30, 19:10,

21:50, 00:30

Igandea: 16:30, 19:10,

21:50

Yo-kai watch: la película

Ostirala: 16:00

Larunbata: 16:00

Igandea: 16:00



LABURPENA

Selfie

Zuzendaria eta gidolaria: Victor Garcia Leon. **Herr:** Espainia (2017). **Aktoreak:** Santiago Alveru, Macarena Sanz, Javier Carramiñana, Alicia Rubio, Pepe Ocio... **Iraupena:** 85 minutu

Benetako mundura kolpetik

Dokumental faltsu baten gisara grabatutako filma da *Selfie*. Boscoren (Santiago Alveru) aita gobernuko kargu garrantzitsu bat da, baina haren bizitza goitik behera irauliko da aita atxilotzen dutenean ustelkeria, dirua zuritzea eta funtsak bidegabe erabiltzea leporatuta. Haren bizitza perfektua pikutara joango da; ordura arte La Moraleja auzo aberatseko etxe handi batean bizi zen, eta Business Master bat ari zen ikasten Nebrijako Unibertsitate prestigiosuan.

Bakarrik geratuko da: haren neska lagunak utzi egingo du,

eta lagunak eta familiak baztertu egingo dute. Kalean geratuko da, ordura arte goi mailako bizi kalitatea bermatzen zion diru sarrerarik gabe. Orduan, behartuta egongo da ordura arte ez ezaguna zuen benetako munduari aurre egitera. Gizarte mugimenduek txiroenei laguntza ematen dieten elkarteen bidez, Macarena (Macarena Sanz) ezagutuko du, borondate oneko gazte itsu bat. Bere arreta lortzeko Ramon militantearekin (Javier Carramiñana) lehiatu beharko du.

BLACK FRIDAY

AZAROAK 24 • LASARTE-ORIA

Eskaintzak aurkituko dituzu ondorengo komertzioetan:

DECO 75 etxeko ehunkiak | MARITZA mertzeria | MALATU okindegia
 MASAJEEN TXOKOA | HALCÓN bidaiak | ARREGUI elektrizitatea | ALBA moda
 MABEL moda | ORMAZABAL loradenda | OLA markogintza | MARBELL ile-apaindegia
 NOAOA bidaiak | LEDER oinetakoak | ABREU bazarra | LASARTE parafarmazia
 ITURBE zapata-denda | SUKOA burdindegia | DONNA Boutique | KATTAGORRI Jolas
 NATURHOUSE | CHRISTIAN Estilistak | Bideo LAGUNAK | IRIGOYEN optika
 LIZARDI optika | JOSEMA burdindegi sarraila-denda



Euskadi,
azalana, bien común.



TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO

Osasun gida 2017

Zure osasuna, esku onenetan



Hortz klinikak

R.P.S: 24/15



Urdaneta hortz-klinika

- Haurrentzako eta helduentzako ortodontzia
- Odontologia orokorra
- Periodontzia
- Implanteak
- Hortz protesiak
- Aho kirurgia

Pablo Mutiozabal 2, 1. bulegoa 9 • Lasarte-Oria
 Tel.: 943 36 60 79
 Mugikor eta whatsapp-a: 663 75 15 15

R.P.S: 233/13



- Lehenengo kontsulta eta diagnostikoa doan
- Zure aurrekontuari egokitutako tratamenduak
- Doako urgentziarako zerbitzua gure pazienteentzat
- Errehabilitazioetan espezialistak
- Odontologia etikoa

Ola kalea 10, Lasarte-Oria
 943 366 377
 www.dentalaldaz.com

Hurrengo OSASUN GIDA:
 abenduaren 15ean

Parte hartu nahi baduzu,
 jar zaitez gurekin harremanetan:

943 37 14 48 (106)

646 82 44 66

publicitate@ttakun.eus

txintxarri